



Jean  
Etcheverry-Ainchart

1914-2003

BIDeGILEAK

Egilea:

**Peio Etcheverry-Ainchart**



# JEAN ETCHEVERRY-AINCHART

(1914-2003)

## Baigorriar gaztea

**J**ean Etcheverry-Ainchart Ipar Euskal Herriko lehen zinegotzi aber tzale gisa agertzen zaigu historia hurbilean. Baigorriin sortua eta han ere pausatua, nafartarra zen errotik. Euskal Herrian etxearen garrantziaren marka pare gabe gisa, zehaztu dezagun Baigorriin Jean «Ainchart» deitzen zutela, «Ainchartia» baita familia etxearen izena. Etxe hura, lehen lehenik, Baigorriko notabeen etxe bat zen, XX. mendearen hasierako testuinguruan kokatu beharrekoa.


### BASERRI GIROAN NOTABLEA

Baigorri, lehen gerla mundu-gerlaren atarian, herri guziz rurala zen.

Mende erdi bat lehenago, bere biztanle-go eta garapen ekonomikoaren topea lortu zuen, Bankako meategiei esker. Baina Baxe Nafarroko haran menditsu ttipi horren parentesia industrialaren amaierarekin, laborantza hutsera itzuli zen. Lur eskasiaren eraginez, Baigorri XX. mende osoan ezagutuko duen beherakada de-



Ainchartia etxea, Baigorriko elizaren parean, xx. mendearen hasieran



Ainchartia etxea 1932an osoki berreraiki ondotik, gaur egun ere ageri den bezala

mografikoa ezagutzen hasi zen. Emigrazioaren fenomenoak areagotzen zen. Las-ter, mundu-gerlaren eraginek ere zuzenki hunkituko dute: frentean desagerturik edo intsumitu gisa ihes eginik, harana bere gizonen odol-hustea pairatuko du.

Gerla hastekotan zelarrik sortu zen Jean Etcheverry-Ainchart, 1914ko urtarrila-ren 21ean. Sei haurridetarik hirugarrena, Jean familiaren lehen mutila zen. Haz-kuntzari eta laborantzari dedikatu es-kualde hartan, Ainchartia etxekoak sal-buespen gisa agertzen ziren, aspalditik Baigorriko haranean «notable» familia garrantzitsuenetarik bat izan baitziren: izan zedin armadan, politikagintzan edo notariogintzan, botere handiko jendea zen, beste familiekin konparatuz nahiko aberatsa.

Kokapen sozial hau ezin da ulertu Fran-tses Estatuko egoera instituzionala ez bada azaltzen. 1870etik, hirugarren Erre-publika nagusitu zen (1940 arte iraunen du). Lehen aldikotz hasi zen sekulan era-man ez zen eraikuntza instituzional eta nazionala bideratzen, bere eremu osoan erregimen berria sendotzeko eta iraun-



Etcheverry-Ainchart familia 1920 inguruan, Jean bere amaren ondoan

kortzeko. Horretarako toki mailan ordezkariak behar zituen eta naturalki medikuak, notarioak edota oro har deitu «elite intelektualak», kargu handietara heldu ziren. Iparraldekoa bezalako gizarte elebakar hartan gainera, euskara eta frantsesa zekizkiten bakarrak izanez geroz, jende horiek hobekien kokatuak ziren aginte karguak atxikitzeko.

Ainchartia etxeak dinamika horretan sartuak ziren. Jean-en aitatziren aitatzari Baigorriko lehen auzapeza izan zen iraultza frantsesaren garaian, eta ondotik kargua familian transmititu zen etengabe. Jean Nicolas Désiré Jean-en aitak (1869-1966), hain zuzen ere, kargua bere gain hartu zuen 1918an. Baigorriin, denek «Désiré» deitzen zuten. Georgette bere





Jean 13 urtetan

emaztea (1882-1962) Galimard familia-koa zen. Flavigny sur Ozerain-en sortu zen, Frantziako Côte d'Or eskualdean. Aita euskaldun baten eta ama frantses baten artean, Jean nortasun bikoitzeko heziketan murgildua zen sortzetik; alabainan, burasoekin frantsesez mintzo bazen ere, etxean lanean ari ziren neskatoei esker euskara ttipitik ikasia zuen. Horretaz aparte, eredu politiko eta kultural nagusiak frantsesak izanki, Jean Etcheverry-Ainchart-en haurtzaroa «haurtzaro frantsesa» deit daiteke.

## FAMILIA «GORRI» BAT

Baina Ainchartia etxekoek beste berezitasun bat zeukaten, III. errepublikak Euskal Herrian zuen lerrokatze sozio-politikoari lotua: «gorriak» ziren. Zehaztu behar da erregimen berria nagusitu zenetik, gizartea bitan zatitua zela: alde batetik «xuriak» elizaren alde ziren; beste aldetik «gorriak», giristinoak izanik ere, Errepublikaren alde ziren. Luzaz Ipar Euskal Herri fededun hartan gizarteak sakonki zatiturik izaten segituko du.

Garai hartan, Etcheverry-Ainchart bezalako familia giristinoetako haurrek ikasketak Uztaritzeko seminarioari lotu kolegioan egiten zituzten, eta logikak nahiko zukeen Jean ere hara igorria izan zedin. Baina politikak gizarte osoa baldintzatzen zuen, heziketa hautuetaraino. Uztaritzeko apezek hauteskundeetan «xuriak» sustengatzen zituzten, hots Garaziko Jean Ibarnegarai. Etcheverry-Ainchart familiak, aldez, Ibarnegarai-ren aurkari amorratua zen Inchauspé familia sustengatzen zuen. Lehia politiko horrengatik, Jean ez zuten Uztaritzeko kolegiara igorri, Gironde eskualdeko

Arcachon-go Sainte-Elme kolegio domi-  
nikanora baizik. Bertan 7 urtez egon zen.  
Heziketa giristino horretatik, Jean Etche-  
verry-Ainchart-ek bizi osorako fede azkar  
bat atxiki zuen, ondoko bere hautu garran-  
tzitsu guziak baldintzatuko dituen.

## PARISEKO EGONALDIA

Jean gazte biziki seriosa zen. Asko irakur-  
tzen zuen. Gustu anitzak zituen eta guzien  
artean historiaz bereziki pasionatua zen.  
Baina, aita Baigorriko notario, auzapez eta  
kontseilari orokorra ukanez, nahiz eta gus-  
tuz arkitekto bihurtu nahiko zuen, gazterik  
barneratua zuen bere aitaren segida har-  
tu beharko zuela. 1931n, Parisera joan zen  
goiko ikasketen segitzeko eta bere arba-  
soek bezala, zuzenbide formakuntza hau-  
tatu zuen. Ikasle serios eta brilantea izan-  
ki, hogoi urtetan lizentziatu zen, 1934an.  
Doktoregoan segitu nahi zuen, orduan  
orotara 6 urtez egon zen Parisen. Denbo-  
raldi horrek zion bere bilakaera politiko  
pertsonalaren hasteko parada eskaini.

Hain zuzen, oroitarazi behar da hogoita  
hamargarren hamarkadaren hasiera gu-



Arcachon-go eskolan. Jean lehen lerroan,  
bigarrena eskuinetik



Etcheverry-Ainchart familia 30. hamarkadaren hasieran.  
Jean zutik, ezkerrean

ziz nahasia zela estatu frantsesan. Erru-  
siar iraultzak ezkerreko mugimendu so-  
zial eta politikoak azkartu zituen, «arrisku  
gorri» gisa agertuz Etcheverry-Ainchart  
bezalako euskaldun-fededun baten bai-  
tan. Momentu berean, III. errepublikak  
eskandalu politiko larri batzuren ziliportak  
jasaiten zituen. Ondorioz, alderdien  
sistema eta demokrazia bera eskuineko  
jendeari usteldua agertzen zitzaizkion;  
iduritzen zitzaion bere herrian balore tra-  
dizionalak galtzen hasiak zirela. Jende ho-  
rien lehen lerroan, 1914ko gerlako gudari  
ohiak agertzen ziren, gizarteak haiendako  
zuen errespetu handiaz baliatuz. Liga ba-  
tzuen bidez, eredu kontserbadore eta au-  
toritarioa hedatzen zuten. 1934ko otsai-  
laren 6an, eskuin muturreko liga horiek  
manifestaldi handi bat antolatu zuten, lis-  
kar larrietan bukatu zena.

«Suzko gurutzeek» bereziki giristinotasun  
sozial eta patriota baten aldeko mezua za-  
baltzen zuten. Jean Etcheverry-Ainchart,  
zuzenbide unibertsitateko giro eskuinda-  
rrak eta Ipar Euskal Herrian —familian  
berean ere— ezagutu zuen unibertso  
kontserbadoreak bultzaturik, tenden-



Eugène Goyheneche-rekin, 80. hamarkadan.  
Laguntasun eder bat elgarri atxiki zioten

tzia horretatik hurbil zen. Giro horretan,  
lehen aldikotz politika zuzenki segitzen  
hasi zen.

Baina beste elementu batek garrantzia  
hartu zuen bere bilakaera politikoari begi-  
ra: Pariseko talde euskalzale batean sartu  
zen 1933an, «Eskual Ikasleen Biltzarra»  
(EIB) deitua. Talde euskalzale guti bazen  
garai hartan, are gutiago mundu politi-  
koan. «Aintzina» lehen talde politiko egi-  
turatua 1934an sortuko da ofizialki. Hots,  
1933an sortu EIB ez zen arras politikoa;  
baina taldea osatzen zuten izen batzuk  
laster Eusko Alderdi Jeltzaleko partaide



gisa ezagutuko dira, Eugène Goyheneche EIB-ko lehendakaria besteak beste. Pentsa daiteke jende horien ezagutzaren bidez abertzaletasunaren lehen kimuak loratu zitzaizkiola.

## GERLAREN BIDEAN

Zuzenbide ikasketak bukatu ondotik, Jean zerbitzu militarra deitu zuten 1936an, infanteriako lotinant gradoarekin. Euskarra zekienez geroz, frantsesa ulertzen ez zuten euskaldun soldado tropen agintea eman zioten.

Zerbitzu garaian, Jean-ek bere aitaren lagun ospetsu baten ezagutza egin ahal izan zuen, René Cuzacq historialariarena. Egun batez, Cuzacq-ek galdetu zion: «zer hautatu duk doktoregorako gai gisa?». Jean-ek ez zuen oraindik gai berezirik hautatu eta Frantziako edo Europako historian zertxobait atzemanen zuela erantzunik, Cuzacq-ek erran zion: «nola? Zer debru joanen hiz hain urrun, hainbeste gauza badiirelarik hemendik hurbil ikertzeko! Hala nola hain bitxia den Kinto-ko historia...». Jean-ek sekulan ez zuen



Jean zerbitzu militarrean

zehazki jakin Kintoak zer berezi zuen; eta hara nun hasi zen, aisialdi denboretan, Baigorriko paper zaharrak biltzen eta ikertzen, bizi osorako interes handikoa egonen zaion gai berezi horren inguruan.

Zerbitzu militarretik itzultzean, Jean Parisen egon zen notaritza ikastaro baten segitzeko, 1939an frantses gobernuak mobilizazioa agindu arte. Gerla piztu zen Alemaniaren kontra eta gazte guziak armadara deituak ziren. Jean Alsaziako «Maginot line gotortura» igorri zuten. 1940ko maiatz eta ekain artean, Frantziak sekulako porrot militarra ezagutu zuen eta



Gerla denboran, Alemanian gatibu



Jean eta Alice, ezteien egunean

alemandar armada haren eremuaren erdia okupatzen hasi zen. Jean Alemaniako «Oflag» ofizial presondegi batera igorri zuten, Westphalia eskualdean. Baigorriin, alemanek Ainchartia etxea hartu zuten, etxekoa kanporatu, eta bertan «Komandantur» aginte gunea antolatu.

1941eko abenduan, Jean askatu zuten. Baigorriara sartu eta gero, notario gisa hasi zen lanean, bere aitarekin batera. 1944ko martxoaren 6an, Alice Laxague-rekin ezkondu zen. Elgarrekin, sei haur ukanen dituzte, gaur egun bostek bizirik dira utelarik.



Familiak 6 haur ukan zituen. Ainchartian 1965ean, haur gazteena hil baino zenbait hilabete lehenago



# Gizon politikoa

Jean Etcheverry-Ainchart-en deputatu  
karta

## «EUSKAL DEPUTATUA»

1945eko maiatzaren 8an, gerla bukatu zen. Errepublikak berri bat sortu zen estatu frantsesean, eta konstituzio bat eman behar zitzaion. Horretarako legebiltzarreko hauteskundeak deitu ziren 1945eko urriaren 20ko, eta talde politiko guziek departamendua hautagai zerrendak osatu behar zituzten. Basses-Pyrénées departamenduan —gaur egun Pyrénées-Atlantiques deitzen dena—, alderdi bakoitzaren erronka Biarnotik zein Ipar Euskal Herriatik hautagai ospetsu batzuren aurkeztea zen.

Zerrendaburuen artean, Pierre de Chevigné erresistentziako aurpegi ezagunak demokrazia giristinoa ordezkatzeko departamenduan, MRP alderdi berritik hurbil. De Chevigné bera biarnesa izan ki, zerrendako bigarren postua euskaldun batentzat izan behar zen eta Jean Etcheverry-Ainchart-i proposatua izan zitzaion. Baigorri ezaguna bazen ere, Jean-ek deus ez zuen sekulan frogatu politika mailan, eta haren bitartez familiaren izen fama-tua baizik ez zen bilatzen. Lekukoa aitatik semera berriz pasatzen zen, Jean Etcheverry-Ainchart-en karrera politikoa abiatzen zen.



Adosmena adierazi ondotik, beste arazo bat gelditzen zen: etiketa bat behar zen zerrenda batean aurkeztu ahal izateko. Jean Etcheverry-Ainchart ez zen MRP-ko bazkide eta izateko asmorik ere ez zuen. Horregatik bere burua «euskal hautagai independente» gisa proposatu zuen. Baina etiketa hori zerrendakideei sobera polemikoa iduritzen zitzaien, eta azpimarratzen zioten bere deitura aski zela euskalduntasuna adierazteko; hots, «euskal» hitza kentzeko galdetu zioten. Etcheverry-Ainchart-ek erantzun zien zerbait atxikitzekotan «euskal» hitza izanen zela, eta hara nola azken finean «euskal hautagai» gisa aurkeztu zen, eta hautatua izan. Beste 15 deputaturekin, independente talde bat osatzen zuen.

Hiru astez, laborari munduko notario xume izatetik deputatu bihurtu zen, hori ez baitzen gauza ttipia Baigorrirentzat, ez eta Euskal Herriarentzat ere. Goresmen gutunetarik bat buruan beti atxiki zuen Etcheverry-Ainchart-ek, igorleak iraultza garaiko Garat anaien ondokotzat hartu zuelako: «goresmenak, lehena zara 1789tik!».



Autonomia estatutu proposamena

## AUTONOMIA PROPOSAMENA

Garat anaiekiko lotura ez zen, ez, azalekoa. Urte bat ere ez zuen iraun legealdiak, baina Etcheverry-Ainchart hilabete horietaz baliatu zen lehen aldikotz Ipar Euskal Herriarendako autonomia estatutu bat proposatzeko, Garat anaiek euskal departamendua aspaldian eskatu zuten bezala.

Testuinguru politikoa ez zen batere horren aldekoa: Iparraldea, estatu frantses osoa bezala, gerlatik atera berria zen eta frantses patriotismoa azkarra zen. Jendea ez zen oraindik prest horrelako aldarri-



kapenen entzuteko, are gutiago sustengatzeko. Alderdi abertzalerik ere ez zen existitzen.

Basamortu horren erdian, hiru militante isolatuk (Legasse, Landaburu eta Ospital) testo bat idatzi zuten, 1931ko eta 1936ko Hegoaldeko estatutuak eredutzat hartuz. Testoak instituzio berezi bat eskatzen zuen Ipar Euskal Herriarendako, eta eskumen zerrenda bat proposatzen zen. Testoko bosgarren kapitulua euskarari dedikatua zitzaien, idatziz «euskaldunen hizkuntza nazionala euskara dela eta frantsesa bezala onartua izan behar dela», eta azpitituluek euskararen erakaskuntzaren baldintzak zehazten zituzten.

Hiru lagunak baigorriar deputatu berriarengana joan ziren 1946ko hasieran, eskatuz proiektua konstituzioaren idazteko sortu batzordeari helarazteko. Etcheverry-Ainchart-ek segidan onartu zuen. Batzordekide bakoitzarengana joan zen, baina-banan, baina ihardokipen baikorrik ez zuen lortu. Proiektua ez zen Asanblada Nazionalean aipatua ere izan, baina engoitik sekulan ez zen berriz maila instituzionalean hain gora eramanez. Baina oharga-

## TITRE CINQUIEME

### La langue

ART. 2. — La langue nationale des Basques est l'eskuara. Elle sera reconnue officielle dans les mêmes conditions que le français.

ART. 14. — Dans les écoles primaires sur les sept années de scolarité prévues par les lois de la République Française, les trois premières seront données exclusivement en langue basque. Les quatre dernières dans les deux langues, le basque restant la langue de base, le français étant enseigné en partant du basque et par comparaison avec ce dernier.

ART. 15. — Un institut d'enseignement primaire supérieur sera créé et soutenu par le Pays Basque. Le certificat d'études, le brevet élémentaire et le brevet supérieur seront décernés par les organismes du Pays Basque, selon les programmes fixés par les autorités basques.

ART. 16. — Les divers Lycées et toutes les autres institutions d'enseignement secondaire du Pays Basque suivront les mêmes programmes que dans le reste de la République Française.

Le basque sera admis au baccalauréat au même titre que l'anglais, l'espagnol, etc.

ART. 17. — Dans les Facultés des Lettres de Bordeaux et de Toulouse, les chaires de langue et littérature basque seront maintenues ou restaurées et le diplôme de langue et littérature basque comptera pour l'obtention de la licence ès-lettres.

Autonomia estatutu proposamenaren euskarari buruzko atala

riena, dudarik gabe, 30 urteko gazte batgerlaren biharamuneko legebiltzar konstituzioegile bati horrelako testo bat proposatzera ausartzea izan zen!


Etcheverry-Ainchart ez zen luzaz deputatu egon. Konstituzio proposamena erreferendum bitartez baztertua izan zen 1946ko maiatzean, eta beste hauteskundeak antolatu ziren ekainean. Ez zuen bere burua berriz aurkeztu nahi izan, aita zaharkitua baitzuen eta notario gisa haren segida hartu behar zuelako. Gisa gu-

ziz, Parisetik mundu politikeroaz nahiko okaztaturik sartu zen. Gehiago ere, baliteke Asanblada Nazionaleko bere esperientziak ziola sortu tokiko politikagintzarekiko atxikimendua, hots bere herrikoa, eta konfirmatu ere urte zenbait lehenago hazten hasi zitzaion euskal abertzaletasuna.

## BIHURGUNE KULTURAL BAT

Momentukotz, Baigorriara itzulirik, denbora batez mundu politikoa urrunagotik begiratu zuen. 1945eko herriko hauteskundeetan, bere aitak alkatetza utzi zuen, baina Jean Etcheverry-Ainchart-ek ez zuen sekulan postu hori hartu nahi izan. Azkenean, lehen axuant bihurtzea baizik ez zuen onartu. Notario kargua osorik bere gain hartu zuen 1946an. Familia urte haue-tan hasi zitzaion handitzen ere bai. Azkenik, nahiz eta sekulan esku sartze handirik ez zuen ukan kultur munduan, urte haie-tan lan kultural bat eraman zuen.

Zinegotzi gisa, Euskalzaleen Biltzarrak Baigorriin antolatu ekitaldian parte hartu zuen 1946an. Euskalzaleen Biltzarraren bidez euskalzale asko ezagutu zuen, batez ere



*Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* aldizkarioko ale bat. Jean Etcheverry-Ainchart-ek Baigorriko historiari buruzko artikulua bat plazaratu zuen

Hegoaldekoak. Horrek garrantzia handia ukan zuen bere ibilbidean. Horrez gain, ikerketa historikoetan murgildu zen elkar-te edota aldizkari batzuek eskaturik. Nafar eta are gehiago baigorriar gisa, bizi zen ha-ranaren historiari maitemindua zen. Hain-bat artikulua eta mintzaldi idatzi eta ar-gitaratu zituen: «Baigorriko harana eta Kintoa» (1948an Eusko Ikaskuntzaren kongresuarendako), «Baigorriko harana iraultza frantsesaren garaian» (1954an Eus-



Jean Etcheverry-Ainchart ez zen sekulan Baigorriko auzapez izan. Haatik ez zuen tokiko interes hori galdu. Hemen Baigorriko beheko plazan, lehiaketa baten epaimahaian, 1966an

ko Ikaskuntzaren kongresuarendako berri), «Baigorri XVIII. mendean: herri harro eta independentea» eta «Baigorriko harana eta indar zentralisten ordezkariak» (Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearendako 1956an), «Euskal Herria» (1965ean Mauleko Rotary elkartearendako) eta beste hainbat artikulua *Gernika*, *Eusko Jakintza*, *Gure Herria* eta *Euskal Museoko boletina* aldizkariarentzat.

## KONTSEILARI OROKORRA

Auzapez kargua utzi bazuen ere, Jean Etcheverry-Ainchart-en aitak kontseilari orokor izaten segitzen zuen oraindik. Horretan ere Jean Etcheverry-Ainchart-ek bazekien segida goiz ala berant hartu beharko zuela. 1951n gertatu zen eta ordutik 1976ra egon zen. Bertan eramaten ziren lanetan, azpiegiturak ziren nagusienak: Ipar Euskal He-



rria XIX. mendean bezala bizi zen; mendi-ko herri anitzek bide onik ez zuten, ur eta argindarrik ere ez zen etxe guzietan. Baigorriin bertan, desorekak nabarmenak ziren alde horretatik: herri barneko auzoek erosotasun zerbait lortzen hasiak zirelarik, bazterretakoak arras arkaikoak gelditzen ziren, hala nola Belexikoa.

Bestalde, oroitarazi behar da Baigorriko harana bera nahiko baztertua zela, mendietan galdua, eta Iparralderuntz ezik oso zaila zela handik autoz ateratzea. Hain hurbila zen Nafarrora joateko bide onik

ez zen. Etcheverry-Ainchart-en biziko proiektua beti Iruñera joateko bide on bat eraikitzea egon zen. Baina Paueko asanbladan interesa ez zen horretan, bereziki Louis Inchauspé Garaziko kontseilari orokorra lehendakaritzatik atera zenetik. Urte hartan haatik, Inchauspé-k tokia de Chevigné-ri utzi zion eta Etcheverry-Ainchart lehendakari orde bihurtu zen; baina alferrik, proiektua sekulan ez zen gauzatu.

Bere aitaren segida ere hartu zuen Michel Inchauspé oroit da garai hartan Iparralde barnekaldeko kontseilariak osatzen zuten «mafia» delakoaz, elgarrekin euskal interesen zaintzeko: Madré, Ospital, Labéguerie, Goux, Errecart, Inchauspé eta Etcheverry-Ainchart. Nahiz eta batzuk zentristak izan, Inchauspé bera eskuindarra, Etcheverry-Ainchart abertzalea, adixkide segitzen zuten eta Paueko asanbladan lortzen zuten elgarrekin lan egiten. Haatik sekulan ez zuten Etcheverry-Ainchart bere abertzaletasunaren bidean segitu. Urte haietan de Gaulle-k eraman politika zentralistak berriz bultzaturik, Etcheverry-Ainchart bide horretan buru-belarri sartu zen.



Barnekaldeko kontseilari orokorren «tropa», 1962an: zutik, ezkerretik eskuinera, Michel Labéguerie, Jean Errecart, Jean Etcheverry-Ainchart, Louis Madré eta Michel Inchauspé



## ABERTZALETASUNAREN HAUTUA

Bide hori hirurogoigarren hamarkadaren hasieran ideki zitzaion. Ordu arte, talde abertzale osaturik ez zen. 1960an, Enbata gazte taldea sortu zen, izen bereko hila-betekariarekin batera, eta mugimendua-ren lehen ekitaldi nagusia Itsasun antolatu nahi zuen, 1963ko Aberri egunaren kariatara.

Alabainan sortzetik Enbata ez zen ongi ikusia, Ipar Euskal Herria gune beti bezain kontserbadorea baitzen. Enbatako gazteek sustengu ospetsuak behar zituzten; Etcheverry-Ainchart-ek 1962an eza-gutu zituen eta hasi zen beren aktibitatea segitzen. Hain zuzen, 1962an taldeko bat aurkeztu zen legebiltzarreko hauteskundeetan, Michel Labéguerie. Etcheverry-Ainchart-ek bere hautagaitza sustengatu zuen, pentsatuz abertzaletasuna aurrera eramane zuela. Baina hauteskundeak irabazi ondotik, Labéguerie Enbatatik urrundu zen. Nehor ez zen abertzaletasunaren ikurra hartzeko, Jean Etcheverry-Ainchart baizik.



Etxeke atean, 60. hamarkadaren erdian

1963ko hasieran, Etcheverry-Ainchart Enbatako zuzendaritza batzordean sartu zen. Taldeak Itsasuko Aberri eguna antolatu zuen eta Kontseilu orokorreko lehendakari ordearen irudiaz baliatu nahiz, erabaki zuen ekitaldi ofizialean Etcheverry-Ainchart-ek Enbataren xarta irakurriko zuela. Xartak abertzaleen

ideia eta eginbeharrak aipatzen zituen. Helburua herrien Europa federal batean Euskal Herri independente bat zen. Eus-kara ere aipatzen zen, estatutu ofizial bat eskatuz.

Garai latzak ziren euskararen aldetik. Es-kola sistemak hizkuntza gutituak debeka-tzen segitzen zuen. Baina barnekaldean jendea euskalduna zen oraindik. Horre-gatik Iparraldeko lehen abertzaleenda-ko lehentasuna eraikuntza politikoa zen. Etcheverry-Ainchart euskarari errotik atxi-kia bazen ere, bere belaunaldiko politika-riek lan gehiena politika mailan eraman zuten. Kontzientzia kulturala geroago jin zen, lehen ikastolekin...

Jakes Abeberry eta Ximun Haran Enba-tako sortzaileek diote Etcheverry-Ainchart-entzat Enbataren sortzea askapen bat izan zela. Urte batzuk geroago, elkarritz-keta batean, Etcheverry-Ainchart-ek be-rak hori aitortu zuen: «Ordu arte ez nin-tzen sekulan abertzale gisa ofizialki agertu; Aberri egun hartan agertu nin-tzen publikoki gazte talde horren alde eta erabaki nuen taldearen partaide oso bihurtzea».



1964ko hauteskundeak aintzin,  
Jean Etcheverry-Ainchart-ek bere  
engaiamendua ofizializatu zuen Enbatan

1964ko hauteskunde kantonalean, Etche-verry-Ainchart-ek urrats berri bat egin zuen bere burua «Enbata» etiketapean aurkeztuz. Alta garai hartan zaila zen En-bataren hautua egitea, bereziki kargudun politiko handi batentzat: Iparraldeko gi-zartea ez zen aldatu mendeko lehen zatiaz geroztik, eta beti bezain kontserbadorea zen. Enbata mespretsatua zen, «Enbata zikina» deitua. Etcheverry-Ainchart «En-bata» etiketarekin aurkeztu zelarik, boz-ken kondaketan komentario idatziak jar-tzen zituzten boletin batzuk ikusi ahal izan ziren: «JEA-ri bai, Enbata-ri ez». Argi zen Jean Etcheverry-Ainchart-en

garaipena Baigorri ez zela inundik ere Enbatarena, baizik eta Enbata notable baten garaipenaz baliatzen zela garaipen enblematiko bat bereganatzeko. Biziki argi zen Enbatako kideen buruetan, Etcheverry-Ainchart-en buruan bezain argi.

## ENBATA-KO ZINEGOTZIA

Etcheverry-Ainchart-ek hartu bideak oihartzun handia zuen Baigorri bezalako herri ttipi hartan, eta gaur egun ere bere familia haren tinkotasunaz oroit da: zernahi gauza entzun behar izan zuen, baina sekulan ez zen bere printzioetatik mugitu. Are gehiago, ETA borroka armatuaren bidean sartu zelarik eta militanteak Iparraldean aterbetu behar izan zirelarik, Etcheverry-Ainchart-ek zalantzarik ez zuen ukan laguntza emateko. Alice Etcheverry-Ainchart bere alargunak dio: «Sekulan ez zen bortizkeriaren alde izan, baina sekulan ere ez zuen norbait kondenatu nahi izan, bereziki Frankismoaren garaiko egoerak zituela jende arruntak bide horien hartzera bultzatu kondutan harturik».

1967an, legebiltzarreko hauteskunde berriak deitu ziren. Enbata-k Barnekaldean Christiane Etchalus aurkeztea deliberratu zuen. Hautu sinbolikoa zen: Domin txineko emazte gazte hura presondegian egon zen Iruñan, Guardia zibilak bere autoan lehergaiak atzemanik. Enbata-k fama txarra ukaiteaz gain, ETA-rekin lotura zuen militante bat aurkezten zuen! Etcheverry-Ainchart-ek kanpaina egin zuen Etchalus-ekin Baigorriko eta Gartziko herri guzietan. Kantonamendu horietako auzapez bakoitzari gutun pertsonal bat igorri zion ere, hautagaitzaren goraipatzeko. Baina Michel Inchauspé eskuindarrak zuen irabazi.

Urte batzuk geroago, ETA-ko militanteak kopuru handian heldu ziren Iparraldean aterbetzera. Etcheverry-Ainchart-ek eta bere seme-alabek batzuei laguntza eman zieten, mugara bila joanez eta Ainchartian hartuz, besteak beste. Jendeen etxeetan hartuak ziren, baina laster egoera problematikoa bilakatu zen. 1972an, lehen gose greba hasi zen Baionako katedralean errefuxiatu estatutu baten eskatzeko. Sustengu politikoak lortu behar ziren



Kargua uztean, Jean Etcheverry-Ainchart-i omenaldia egin zioten Pauen

eta delegazio bat Etcheverry-Ainchart-en ikustera joan zen. Erabakia zaila izan zen harentzat, Emile Laxague bere koinatua

Baionako apezpikutegiko bikario jenerala baitzen. Baina hala ere onartu zuen afera hartan inplikatzeko, Iparraldeko zinegotziak grebalariei ikusteko joatera bultzatzeko. Asko joan ziren, Guy Petit Miarritzeko auzapez-senadorea besteak beste. Baina gehiago ere, Pauen Kontseilu orokorreko ondoko bilkuran, Etcheverry-Ainchart prefetaren aintzinean zutik egon zen erranez: «jauna, zutik egonen naiz bilkura honek hiru egun iraun behar badu ere, ordezkatzen duzun administrazioaren kontra protestatzeko, nire anaiak gosez hiltzen ari baitira Baionan momentu honetan». Lobi lan horren ondotik, barne ministeritza mugitu zen eta errefuxiatu guziek paperak erdietsi zituzten.

1976an, Etcheverry-Ainchart-ek bere kargu politikoak utzi zituen. Denborak aldatu ziren eta horretaz oharturik lekukoa gazteago batzuri pasatzeko prest zen.





Jean Etcheverry-Ainchart Baigorriko notarioa, Ainchartian zuen bulegoan

# Notario eta euskalzalea

## POLITIKAN AZKEN URRATSAK: *AGER*

Katedraleko aferaren ondotik, 1974an frantses barne ministeritzak Enbata legez kanpo uztea erabaki zuen. Etcheverry-Ainchart-ek, Enbata-ko beste partaideek bezala, jandarmak etxean ukan zituen, adierazteko debekatua zitzaiola mugimendu horretan segitzea. Urte bat geroago, *Enbata* aldizkaria berriz abian jarri zen, baina bide ezkerregi bat hartuz Etcheverry-Ainchart-en ustez. Bestalde iduritzen zitzaion berriki sortu Euskal gobernuaren politika ez zela aski aipatzen. *Enbata*-koekin lagun segitu arren, beste talde batean sartu zen, Xi-

mun Haran, Ramuntxo Camblong eta Eugène Goyheneche-rekin batera, besteak beste.

Talde hura Hegoaldeko jendearekin loturak azkartzen saiatu zen, bereziki EAJ-ko militanteekin. Hilabetekari berri bat sortu zuten, *Ager* izeneko, zeinean Etcheverry-Ainchart-en eginbeharra Nafarroko aferak segitzea baitzen. Garai hartan lagun frango egin zituen Hegoaldean, bereziki Karlos Garaikoetxea Euskadi erkidegoko orduko lehendakaria. EAJ-rekiko hurbiltasun hori ez zen batere problematikoa Etcheverry-Ainchart-entzat: Enbata-ren filosofia baino askoz gehiago, EAJ-ren printzipio demokrata-giristinoak



Ager aldizkariaren ekipa



Karlos Garaikoetxearekin



sortzetik bereak ere ziren. *Ager*-ko ekiparekin, familia politiko berri bat atzeman zuen. Bere azken familia politikoa izan zen, EAJ-ren zatiketarekin laster inplikazio politiko osoa geldituko baitu.

Politika prentsaren bidez hurbiletik segitzen jarraitu zuen hala ere: poz handi batez hartu zuen Jean-Michel Galant AB-ko hautagaiaren garaipena 2001eko Baigorriko hauteskunde kantonaletan. Harenzat nunbait, Pauen bere ondokoa...

Jean Etcheverry-Ainchart-ek EAJ-ren alderdi egunera gomitatua izan zen 1990ean Gasteizen hitzaldi bat eman zuen

## FAMILIAKO AZKEN NOTARIOA BAIGORRIN

1984 arte, notario izaten segitu zuen. Urte hartan erretiratu zen. Bulegoa saldu behar izan zuen, seme-alaben artean nehork ez baitzuen berriz hartu. Zaila izan zitzaion, familiak azken hiru mendeetan ofizioa beti atxiki ondotik lokarria hausten baitzen. Zuzenbidearen munduan 50 urte pasatu zituen.

Donibane Lohizunen notario ere izan den bere semearen ustez, notaritzaren urrezko garaieko azken urteak ziren, bereziki laborari munduan: bezeroekiko harreman sanoak ziren oraindik, konfiantzazkoak. Baigorriin, jendeak bazekien bere notarioak legetik dena hartuko zuela herriko jendeen interesen zaintzeko, eta beharrez legearekin jostatzen ere bazekiela Euskal Herriko zuzenbide zaharreko logiken alde jotzeko.

Adierazgarria da ikustea hirurogoigarren hamarkadan Enbata alderdiak antolatu gaualdi batendako hitzaldi bat idatzi zuela, ondoko izenburuarekin: «Euskaldunen ihardokipena legearen aintzinean».

ENTRETIENS DE BAYONNE  
« Le Droit et l'Homme »

**SAMEDI 12 MAI**  
dans les locaux du journal « ENBATA »  
14, RUE DES CORDELIERS

**Le DROIT et L'HOMME BASQUE**

ENTRETIENS SUIVIS DE DEBATS :

10 h. M. Eugène GOYHENECHÉ, professeur à la Faculté des Lettres de Pau.  
**LA LOI BASQUE**

11 h. 30 M. Guy HÉRAUD, professeur à la Faculté de Droit de Pau, auteur de « L'Europe des Ethnies » et de « Langues et Peuples d'Europe ».  
**LE DROIT DES MINORITÉS NATIONALES EN EUROPE**

14 h. 30 M<sup>r</sup> Jean ETCHEVERRY-AINCHART, notaire, vice-président du Conseil Général des Pyrénées Atlantiques.  
**LE COMPORTEMENT DES BASQUES DEVANT LA LOI**

15 h. 30 M<sup>r</sup> Maurice ABEBERRY, avocat au Barreau de Bayonne.  
**LES MILITANTS BASQUES ET LA JUSTICE DES ÉTATS**

17 h Discussion des Entretien de Bayonne au Musée Basque :  
**LES DROITS DE L'HOMME**

L'impr. - Photogr. du S.-O. - Anglet

Enbatak antolatu mintzaldian,  
Jean Etcheverry-Ainchart-en ekarpena

Hitzaldian, frantses herritarren eta euskal herritarren arteko ezberdinatunak aztertzen zituen, eta ikertzen lege gizon batek berak zituen ahalmenak legearekin jostatzeko, azken finean euskaldunek herrikoak ez diren legeak arbuiatzen dituztelako! Etcheverry-Ainchart, lege gizon





Euko Legebiltzarrera gomitatua

izanik ere, herriko jendearen alde ari zen lehenik.

Laborari munduan, belaunaldi hartako notarioek ez zuten sekulan lanarekin oso-rik mozten, beti eta edozein ordutan norbaitek bere zerbitzuak eskatzen zituelako. Askotan arratsetan bezero bat bulegoan hartu behar zuten, asteburuetan berdin. Horregatik laster erabaki zuen igandee-tan bederen lasai egon nahi zuela, eta ba-

kean izateko hautatu zuen Hegoaldera joatea. Ez zitzaion ez sobera kostatzen, hainbeste maite baitzuen bidaiatzea, bereziki Euskal Herrian. Bidaiaz bidaia, Hegoaldeko probintziak gogoz ezagutu zituen. Baina bere probintzia maiteena beti Nafarroa izan zen, hura eta bera nafar sutsua baitzen.

Sekulan ez zen hain pozik Leireko monastegira abian zelarik baino. Gehiago





Iparraldeko militante «galardonatu» bakarra

ere, kanpotik ikusirik, gune berezi hark Etcheverry-Ainchart-en pertsonalitatearen ezaugarri guziak biltzen zituela nabarmena zen: lehenik, Nafarroko erresumaren ohakoa zen. Bigarrenik, historia gune handia zen, hori beti bere pasione handia izan zelarik. Hirugarrenik, fede toki ederra zitzaion, giristinitasunak betidanik eta bereziki bere biziaren bukae-



Jean Etcheverry-Ainchart,  
aitatxi amultsu eta jostakina

ran ukan zuen garrantziarekin. Eta gehi daiteke... Leireko fraileen ezitia, zeinez moko-fin hura zuhurtzirik gabe gozaten baitzen.

Ez da kasualitate bat bere hurrek Leirera promenar eraman baitzuten 2003ko urriaren 29an, hil baino egun batzuk lehena-go, pentsatuz bere azken bidaia izanen zela. Zer zorion izan zen harentzat azken aldikotz hara joatea!

Hilabete bat geroago, 2003ko azaroaren 28an, Jean Etcheverry-Ainchart «Ainchartia» bere etxean pausatu zen.

## « Abertzale » avant la lettre

Il fut le premier candidat à porter l'étiquette de candidat « basque » dans une consultation nationale. Jean Etcheverry-Ainchart a reçu le prix spécial de la Fondation Sabino Arana Goiri

On ne le voit peut-être pas courir les salons ou les tribunes à la recherche d'honneurs spectaculaires. Discret. Très discret, Jean Etcheverry-Ainchart, installé depuis quelques années dans une paisible retraite de notaire de campagne, attaché à sa maison, à sa vallée, à son pays. Là, dans cette petite vallée de Biscaye qu'il n'a jamais voulu quitter pour longtemps. On l'a pourtant vu récemment monter sur la scène de la Pléiade de Bilbao pour y recevoir le prix spécial 90 de la Fondation Sabino Arana Goiri.

### Qui fut Sabino Arana Goiri ?

■ Eugène Goyhenche occupa en lui le fondateur incontesté du nationalisme basque. « Sans doute, écrivait-il, la conscience basque est-elle aussi ancienne que le fait basque lui-même (...) mais Arana Goiri a eu, lui le premier, le mérite de définir à partir du fait basque, le problème basque, de suggérer des solutions modernes à ce problème et enfin de lutter, au point de dire, de mourir épuisé par sa lutte pour l'Euzkadi ».

■ Euzkadi ! Un terme concu par ce Biscayen, né en 1865 par un 26 janvier, tout comme la devise « Zabalas Bai ». C'est à lui que les sept provinces doivent également la conception de l'ikurrina ou drapeau basque, en tant qu'il lui :

■ Jaungoikoa eta lege zaharra (« Dieu et la loi ancienne »). Revenons (souvenez-vous) Eugène Goyhenche qui accorda une place de choix à Sabino Arana Goiri dans son ouvrage intitulé « Le Pays Basque » sur la symbolique de ce drapeau :

■ Sur un fond rouge symbolisant le sang basque, l'éthnie, se superposent deux croix : la croix de Saint-André rappelle la victoire légendaire de Pélage remportée par les Biscayens sur les Castillais un 25 novembre, jour de Saint-André et par la couleur, le vert du chêne de Gernika, symbole des institutions biscayennes, la croix blanche qui brode le tout, symbolise Dieu, la foi chrétienne... « Vaste programme » !

Quelle ne fut pas sa surprise, il y a quelques semaines, à la lecture d'une lettre signée Jean Inasanti qui, en basque, et d'une écriture toute fine, lui demandait de bien vouloir accepter cet hommage. Comme l'avait fait, un an auparavant, José Miguel Barandiarán, véritable monument du monde culturel basque. Un prix destiné à marquer une vie consacrée aux sept provinces.

Surprise du lauréat distingué, Jean Etcheverry-Ainchart a fini par accepter la proposition du président de la Fondation bis-




« Cela n'allait pas de soi » (Photo DDC)

### INDÉPENDANT, BASQUE

■ Je me présentais, raconte-t-il, en effet, à la députation en 1945 sur une liste d'inspiration démocratique chrétienne dans la liste, après quelques péripéties, fut Pierre de Chevigné. Mon père :

Arana Goiri, telle qu'elle fut écrite par sa mère, dans la langue de Cervantes. Poésie et convictions oblige. L'effigie de Sabino Arana Goiri figure désormais



Sud-Ouest egunkariak Jean Etcheverry-Ainchart-i eskaini zizkion artikuluetarik bat: titularrak zioen «Abertzale aintzindari»

## «LEHENIK EUSKALDUN, GEROKOAK GERO IKUS»

1991ko urtarrilaren 27an, Sabino Arana Goiri fundazioak «galardon especial» saria eman zion, «Bizi oso baten ibilbidea». Ohore handi bat izan zen.

Ekitaldi berezi horri buruzko prentsa artikuluetarik baten titularra «Abertzale aintzindari» izan zen, hain zaila baitzen duela 50 urte euskalzale izatea. Hortik heldu da denek Etcheverry-Ainchart-ez atxiki duten irudi nagusia: zuzentasuna eta leialtasuna. Enbatako sortzaileen araberak, Iparraldeko mugimendu euskalzalearen hasiera dorpe haietan etsai anitz

Enbata astekariak Jean Etcheverry-Ainchart-i hiru aldiz azala eskaini zion. Hau seguraski adierazgarriena

bazen, jende batzuek urrundik begiratzten zuten, baina gutti ziren sustengatzeko arriskua hartzen zutenak, bereziki kargu politiko handikoen artean.

Jean Etcheverry-Ainchart Baigorriko notableak deus ez zuen irabazteko horretan, baina beti hor izan zen, bakararra, zerbitzari; funtsean berak irati emankizun baten bukaeran bere burua horrela definitu baitzuen, 1998an: «Lehenik euskaldun, geroakoak gero ikus!».

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Jakes Abeberriri
- Ximun Harani
- Christiane Etxalusi
- Kattalin Iribarreni
- Agustina Massigogeri
- Michel Inchauspéri
- *Enbata* astekariari
- Etcheverry-Ainchart familia guziari

---

|                  |                                                                                                                                                               |
|------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Zuzendaritza:    | Mikel Atxaga                                                                                                                                                  |
| Argitaraldia:    | 1.a, 2009ko abendua                                                                                                                                           |
| Ale-kopurua:     | 2.300                                                                                                                                                         |
| ©                | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Kultura Saila                                                                                                   |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Argazkilaria:    | Edorta Sanz                                                                                                                                                   |
| Fotokonposizioa: | Ipar, S. Coop.<br>Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao                                                                                                                |
| Inprimaketa:     | Grafo, S.A.<br>Cervantes etorb., 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)                                                                                                 |
| ISBN:            | 978-84-457-3018-8 (Lan osoarena)<br>978-84-457-3020-1                                                                                                         |
| L.G.:            | BI - 3.368-2009                                                                                                                                               |

# BIDOGULEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística